

LIBURU AIPAMENAK

Excluídas y marginadas, Dolores Juliano, 2004 Madril, Cátedra argitaletxeko Feminismos bildumakoa.

Antropologian doktoratua eta Bartzelonako unibertsitatean giza antropologian irakaslea den Dolores Julianok, berak nahiago dituen ikerketa ildoak hezkuntzaren antropologia, migratzaile mugimenduak eta genero ikasketak dira eta zera idazten du: “Gauzak ematen duten modukoak direla haurtzarotik ikasten dugu., eta ebidentziak ez direla eztabaidatu behar. Baina errealitateak korapilatsuak dira eta egiten ditugun irakurketa sineskorrekin ez datoz bat. Are gehiago, sen oneko egiak, gizarte arazoei buruz mundu guztiak dakizkien gauzak, era berean eraturako diskurtsoak dira, interpretazioa behar duten fenomeno sozialak. Jasotako ideietatik ihes egiteko ahalegina egin behar da eta hori gainera probokazio bezala har daiteke”.

Hauxe da, bere azkeneko liburua den honetan, Dolores Julianok proposatzen digun lana, eredu patriarkalaren jokaera desiragarrien arauetatik kanpo geratzen diren emakumeen taldeei buruz aritzen zaigu: bakarrik dauden emakumeak, langile sexualak, lesbianak, edo beraien itxura edo adinagatik baztertuak direnak.

Etenik gabe irakurtzen den liburu irakurgarri eta erakargarri baten aurrean gaude eta beste ikuspuntu batzuk zabaltzen, ulertzen eta geureganatzen laguntzen digu.